

EAEko IRAKASLEAK ETA HEZIKETA BEREZIKO HEZITZAILEAK

2023-2024 IKASTURTEAREN BIRBAREMAZIOA

Behin betiko zerrendak [Hezigunean](#) kontsulta daitezke.

Gorako helegiteak jartzeko epea: **martxoaren 22tik apirilaren 21era**, biak barne.

BAJEN KUDEAKETAN ALDAKETAK

2023ko apirilaren 1etik aurrera, honela jokatu beharko da aldi baterako ezintasuneko kasuan ordezkapenak kudeatu ahal izateko. [Instrukzioa](#).

Aldi baterako ezintasuna aitortu dion medikuak sinatutako baja-partea edo haren kopia lortu beharko du langileak (**medikuari agiria ematea dagokio**).

Baja-partea aurkeztu ezean, ezin izango da haren ordezkapena izapidetu, ezintasun-egoera egiaztatu arte. Langileak lortu duen agiria, ikastetxeko zuzendaritzari eman behar zaio, dagokion ordezkapena ahalik eta lasterren kudeatzeko.

PROZESU ADMINISTRATIBOAK KUDEATZEKO EGOITZA ELEKTRONIKO BERRIA (baimenak, lizentziak, erreklamazioak, etab.)

Langileek Hezkuntza Sailarekin gauzatu beharreko tramite guztiak bide telematikoz egiteko, egoitza elektronikoa berria laster jarriko dute martxan.

Instrukzioa hurrengo astean ateratzea aurreikusten da. Eskaerak egiteko, erreklamazioak edo errekursoak aurkezteko, elektronikoki identifikatu beharko da Hezigunean.

Hasieran trantsizio epe bat ezarriko dute eta Hezkuntza Sailaren asmoa da, udaberriko oporren ostean, langile guztiak eskaerak bide telematikoz gauzatzea.

HEZIKETA BEREZIKO HEZITZAILEAK

ADINAGATIK IRAKASTORDUAK MURRIZTEKO DEIALDIA

Deialdia Hezkuntza Sailaren [web orrian](#) argitaratu da. Eskaerak [Hezigunea](#) atariaren bidez egin behar dira, **martxoaren 21etik 31ra arte** (biak barne). Gogoratu urtero eskatu behar dela eta eskaera egiteko [gida](#) eskuragarri dagoela.

**MARTXOAREN 30ean
bozkatu STEILAS!!!**